



Arartekoaren ebazpena, 2011ko azaroaren 3koa, Asua inguruan -Katea Bidegurutzea- Bilbao-Plentzia Errepidea kaleko uholde arazoei buruzkoa.

Aurrekariak

1. (...) andreak erakunde honetara jo zuen kexa bat aurkezte aldera Lauros ibaia zeharkatzen duen Katea bidegurutzeko uholde arazoaren aurrean eskumena duten administrazioen erantzun eta jarduera falta zela-eta. kokapen hori dela-eta, euri asko egiten duen bakoitzean bertan kokatuta dauden etxebizitza eta enpresek ondorioak pairatzen dituzte.

Laburbilduta, interesdunak honela agertu zuen bere kexa:

- Inguruko ibaiak eta errekek garbitzeko beharra uholdeak ekiditeko.
- Beharrezkoak diren ibilguen kanalizazioa.
- Inguruan hartu beharreko neurriei buruzko konponbide adostua proposatzen duen ikerketa globala egitea.

Horren ostean Lauros ibaiko ibilguaren garbitasun eta mantentze falta azaltzen duen beste kexa bat ere jaso dugu.

2. Kexa onartuta, Loiuko eta Erandioko Udalei, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailari eta URA Ur Agentziari adierazitako kontua aztertzeko beharrezkoak ziren agiriak eta informazioa bidali ziezazkiguten eskatu genien.
3. Aipatutako administrazio guztiek egindako informazio eskaera erantzun zuten, ondoren laburki aipatzen dugun edukiaren bidez.

Loiuko Udalak adierazi zigunez, aspalditik bideratu zituen kudeaketak eskumena zuten administrazioekin, bai URArekin bai Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailarekin, guztientzat onuragarria izan zitekeen konponbide bat lortzeko elkarrizketa bideak irekitzearen egokitasuna proposatze aldera. 2008ko ekainaren 1ko uholdeen ostean egindako kudeaketei buruzko hainbat agiri bidali dituzte, azkenekoan izan direlako. Zehazki, Katea bidegurutzetik eta BI-2704 errepidetik gertu dauden lursailetan egindako drainatzearen diagnosi-txostena, 2009ko ekainekoa, bidali dute, foru sailak DAIR Ingenieros, S.L.-ri eskatuta.

Txosten horrek adierazitakoaren arabera, pasabide gehienetan, sekzioak murriztuta daude eta uhaldi-emia muturreko aldirian pasatzea asko zailtzen da, beraz, ibilguaren tarte horretan gainezkatzeak errazago gertatzen dira. Ondorioz, gainezkatzeko aukera gehien duen tartean landaretza eta lur metaketak kentzeko beharra adierazten du, Pareizo zubiko inguruetatik ibilguaren zabalera bost metrotik hamabi metrora handitzen den ingururaino, lurperatutako eremuetatik ibaian behera, jalkitze kantitate handia metatzen den inguruan. Errepidearen drainatze sareak garbitu eta mantendu ere egin behar direla adierazi dute.





Halaber, bidalitako agirien artean, Uraren Euskal Agentziaren eta foru aldundiaren eskutik jasotako erantzunak daude, ondoren aipatuko ditugunak.

Erandioko Udalak antzeko adierazpenak egin ditu, bere garaian interesdunak inguruko ibaiak eta errekek garbi zitzaten aurkeztutako kexa Uraren Euskal Agentziaren aurrean izapidetu zela azalduz, eskumena duen erakunde den heinean, eta gaiaren inguruko erantzunik jaso ez dutela. Bilbo Plentziarekin lotzen duen errepidea konpontzeko lanei dagokienez, Katea eta Zabalotxeko gurutzearen arteko tartean, Urak erantzuna bidali zien inguruaren arazoak informatze aldera, eta balorazioak Loiuk bidalitakoarekin bat dator gehien bat.

Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailak, bere aldetik, gure informazio eskaerari erantzun zion, honakoa adieraziz:

- Uraren Euskal Agentziak, alorrean eskumena duten administrazioekin lankidetzan, jabari publiko hidraulikoaren babeseta eta zaintza bermatu behar ditu, baita jabari publiko hidraulikoaren babeserako beharrezkoak diren esku-hartzeak burutu ere.
- «Umbeko igarobidea. VII bidezatia. La Cadenako birmoldaketa» lana (1993ko proiektua) foru aldundiak sustatu zuen).
- Bidegurutzeara eraikitzean egindako elkargunearen birmoldaketak bilguneen zein aurreko elkargunearen kokapen eremuaren -bertan, bidegurutzearen plataforma dago orain- maldak handitzea eragin zuen, Erandioko Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioetan azaldutako baldintzatzaileen arabera, Lauros ibaia bideratzeko aurreragoko jardueri dagokienez.
- Aldez aurretik zegoen drainatze obrak eta proiektuan diseinatutako obraren luzapenak duten huste ahalmena onargarria da 100 urteko itzulera epe bati dagokion etorbide baterako kalkulaturik.
- Lauros ibaia aldizka mantentzea garrantzitsua da eskura dagoen tartea murrizten duten lur eta landaretza metaketak saihesteko eta, horrela, urak ibilgutik eraginkortasunez husteko eta gainezkatzeak ekiditeko.
- Herri Lan Sailak arreta berezia jarriko du bidearen tarte horietan errepidearen drainatzea garbitzean.
- Uraren Euskal Agentziak, Herri Lan Sailarekin elkarlanean, Lauros ibaia aldizka mantendu behar duela uste dugu.

Azkenik, Uraren Euskal Agentziak azaltzen zuenez, Loiu Udalari erantzuna emate aldera -udal horrek lehen aipatu dugun Herri Lan Sailaren ikerketa-txostena bidali zuen-, eragindako eremuan ibilgua berreskuratzeko hainbat jarduerara bideratu zituen, obraren mantentzea pasabide-obren titularraren eskumena izan arren, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiararen eskumena.

Bestalde, Loiu Udalari zein Erandiokoari erantzun zien egindako garbiketa lan eta jardueren eskumena argituz. Laburbilduta, hau da agentziaren proposamena:





- Katea bidegurutzean, Lauros ibaia pasabide-obrek eta euste-hormek eraldatu dute.
- Ibilguaren gainean egindako pasabide-obrak ezarritako diseinuaren arabera mantendu behar dira eta mantentze hori obra horren sustatzaile eta titularraren erantzukizuna da.
- Uholdeen arrazoiak:
 - Lohiz eta landaretzaz betetako pasabide-obrek, neurri handi batean, gainezkatzeko zehatzetan eragina dute eta emariak guneretatik husteko zailtasunak sortzen dituzte.
 - Ez da Kateako eremuko arazoaren eragile nagusia.
 - Foru aldundiak biribilgunean egin zituen lanek, eskumena zuen sektore-administrazioaren baimenik gabe, gurutzagune horretan bideen malda handitu zuten eta azpiegitura horren ardura zuen erakundeak ez zuen zegokion lanen sekzioa handitu, ibilguaren igarobideari dagokiona hain zuzen ere.
 - Horren ondorioz, lanak egin baino lehen bidearen gainetik husten zen ibilgua orain zenbait zentimetro gehiago presatzen da, uholde kota handituz eta uretan gora kokatuta dauden lursailak modu negatiboan erasanez.
- Lanek ibilguaren ezaugarri naturalak aldatu dituzte eta, beraz, lanen titularrak mantendu behar du administrazioaren baimenaren baldintzen arabera (ez dago halakorik).
- Ibilguaren egoera ekologiko ona lortzea mantentzearen helburu nagusia da, eta ez pasabide-obretako lohiak eta landaretzak kentzea.
- Arazoaren azken arrazoa pasabide-obraren eskasia da.

Kexaren arrazoiak aztertu eta baloratu ditugu eta, eragindako herri administrazioak eta gaiaren inguruan bildutako eskumenak ikusita, egokitzat jo dugu honako ebazpen hau ematea.

Oharbideak

1. Azaldutako aurrekariak ikusita, Katea bidegurutzeko inguruan uholde arazoak daudela ondoriozta dezakegu. Eremu hori Lauros ibaiak zeharkatzen du eta, ibilgua bezalaxe, errepideko pasabide-obren eta euste-hormen eraginez aldatuta dago. Beraz, eragindako eremuan bildutako eskumenak dituzten bi administrazio aipa ditzakegu: alde batetik, Uraren Euskal Agentzia, ibaiaren gaineko esku-hartze funtzioen titular den heinean eta, bestetik, foru aldundiko Herri Lan Saila, bidegurutzeko pasabide-obraren titular den heinean.

Erreklamatzailleak eta erakunde honetan kexa aurkeztu duen inguruko beste auzokideren batek proposatu dute, lehen eskaera gisa, Lauros ibaiko eta inguruan dauden bestelako erreketako ibilgua garbitzeko beharrezkoak diren lanak bidera daitezen, izan ere, ibilguaren mantentze falta jotzen dute pairatu dituzten uholde ziklikoen arrazoi gusitatzat.





Gai horren inguruan, eskumena duten administrazio guztiek, lurralde eremuan eragina jaso duten udal guztiak barne, ibilgua sedimentu eta landaretzarik gabe mantentzea beharrezkoa dela onartzen dute, izan ere emariak gunehorretatik husteko zailtasunak sortzen dituzte. Hala eta guztiz ere, ibilguaren mantentzea aldizka egiteko eta, horrela, emariak behar bezala hustu ahalko direla bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea nori dagokion adieraztean desadostasunak sortzen dira. Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailaren arabera, Uraren Euskal Agentziak bermatu behar du ibilguaren mantentzea behar bezala egiten dela. Erakunde horrek, berriz, pasabide-obra aldundiak burutu zuenez, foru erakundearen eskumena da ibilguaren mantentzea bideratzea pasabidearen gunean, behar bezala zaintze aldera.

Uraren Euskal Agentziak, Urari buruzko 1/2006 Legearen 7. artikulua babesean, honako funtzioak ditu, besteak beste:

- Jabari publiko hidraulikoa babesteko esku-hartzeak, batez ere administrazio baimenak eta emakidak eskaintzea, baita jabari publiko hidraulikoa erregulatzen duen araudiaren kontrako arau-hausteak zaindu, ikuskatu eta zigortzea ere.
- Eremuan eskumena duten herri administrazioekin lankidetzan, jabari publiko hidraulikoaren babesa eta zaintza bermatzea.

Beraz, agentziaren eskumena da jabari publiko hidraulikoaren babesa eta zaintza bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea. Pasabidean ibilguaren garbiketa burutzeko beharra antzeman ondoren, eskumenaren titularraren den heinean, arazoa konpontzera bideratutako neurriak hartzea sustatu beharko du, izan ere, ibilguaren gaineko bidegurutzearen lanak, bere garaian, ez zuen behar bezalako baimena izan eta, ondorioz, foru erakundeak ez zuen errespetatu behar izan pasabide-obran ibilgua baldintza hobezinetan mantentzeko beharra.

Urari buruzko Legearen 3. artikulua eta estatu mailako urari buruzko Legearen ¹, 128. artikulua ezartzen duten moduan, herri administrazioek jabari publiko hidraulikoa babesteko bildutako eskumenen lankidetzaren eta koordinazio beharrak dituzte. Horretarako, legez ezarritako prozedurak erabiliko dira eta, kasuan kasu, eragindako administrazioen artean egindako hitzarmenetan zehazki xedatutakoak. Tresna horien bidez, ibilgua zaintzeko lan-plan bat eta beste elementu batzuk adostu beharko lirarteke, hala nola, eremuko errepedearen drainatzea, administrazio bakoitzak bere gain hartzen dituen lan eta funtzioak zehaztuz, eskura dituzten eskumenen eta titulartasunaren arabera.

Nolanahi ere, koordinazio eta lankidetzaren bitarteko horiek arazoa konpontzeko nahikoak izango ez balira, Uraren Euskal Agentziak, jabari publiko hidraulikoaren babesa eta zaintza bermatzeko esku-hartze funtzioen titularraren den heinean,

¹ Urari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen uztailaren 20ko 1/2011 Legegintza Errege Dekretua.



baimenak emateaz gain, esku-hartzea bere bitartekoen bidez bideratu beharko du edo foru aldundiari dagokion garbiketa egin dezan eskatu beharko dio, emarian dauden gordailuak pasabide-obren titularraren erantzukizuna direla uste izanagatik, izan ere, ur-lasterraren bilakaera naturalean oztopo dira.

Horregatik, gure ustez, administrazioen artean erantzukizunak eta eskumenak zehazteko ustezko arazo batek ezin du berekin ekarri aldizka uholdeak sortzen dituen ibilgu batean esku-hartzerik ez egotea, horrek dakartzan ondorioekin inguruan bizi diren pertsonengan edo bertan kokatuta dauden enpresetan, eragindako alde guztiak ados baitaude zera baieztatzean: pasabide-obretan lohiak egoteak, neurri handi batean, gaineztatze zehatzak eragiten ditu eta emariak gune horretatik husteko zailtasunak eragiten ditu.

Azken finean, adostasunaren bidez edo, halakorik ez balego, dagozkien funtzioak eta eskumenak erabiliz, arazoa konpontzeko jokatu beharra dago. Jabari publiko hidraulikoaren gainean hartu beharreko neurrien sustapenaren erantzukizuna Uraren Euskal Agentziari dagokio eta hori lortzeko beharrezkoak diren legezko tresnak erabili beharko ditu.

2. Bestalde, Laurosen ibilgua Katea biribilgunearen ingurutik kanpo garbitzeko beharra ere aztertzen da. Agentziak adierazitakoaren arabera, ibilguetarako orokorrean, Uraren Esparruko Zuzendaritzak bertako egoera ekologiko ona lortzen saiatu behar dela xedatzen du eta, horixe da, hain zuzen, bere kezka eta zeregin nagusia mantentzeko dagokionez.

Ibilguaren lohiak garbitzeko eta ibai bazterreko landaretza kentzeko herritarrek egindako eskaeraren aurrean, noizbehinkako uholdeak eragiten edo okertzen dituzten arrazoitzat jotzen baitute, agentziak alor horretan den politika eta eskaera erantzuteko bideratu nahi diren esku-hartze neurriak argi eta garbi azaldu behar ditu. Nolanahi ere, ingurugiroa zaintzeko agindua urratzeagatik edo beste arrazoiengatik egindako eskaera erantzutea eraginkorra edota egokia ez izateko dauden arrazoiak eskaini behar ditu.

Azken finean, gardentasun printzipioari jarraiki, horren gertakari larrien ondorioak pairatu dituzten herritarrek agentziak arlo honetan duen politika eta euren eskaerak aintzat hartzeko edo ukatzeko dauden arrazoi oinarrituak ezagutzeko eskubidea dute. Hitz batez esanda, administrazio prozeduraren alorreko printzipioak eta arauak betetzeaz gainera (ebazpenen arrazoi laburra), ahalegin pedagogiko handiagoa egin behar da uholdeak bezalako gai sentikorrean kalteak pairatu dituzten pertsonen informazioa helarazte aldera.

3. Azkenik, bai erreklamatzailaren eskaeran bai eragindako udalei dagokienez, ikerketa hidrauliko zehatza egiteko beharra proposatu da egoeraren azterketa globala eta konponbideak aurrera eramate aldera.

Aurrekarietan aipatu dugun moduan, desberdintasun nabarmenak daude Katea inguruko uholdeen arrazoi nagusiari dagokionez eta, ondorioz, baita ustezko





konponbideei dagokienez ere, Lauros ibaiaren ibilgua mantentzeko beharraz gain, oharbide hauen lehen atalean azertu duguna.

Gai horren inguruan, Uraren Euskal Agentziak jabari publiko hidraulikoaren babesa eta zaintza bermatzeko funtzioa daukala uste dugu, eskatutako ikerketa hidraulikoaren burutzapena sustatu behar du, inguruko uholdeen arrazoiak behar bezala diagnostikatu eta aldizka gertatzen diren uholdeentzako konponbideak zehazteko. Prozesu horretan egokia litzateke eragindako udalekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarrikeria bideak irekitzea, euren ekarpenak bildu eta ezarri beharreko konponbideak behar bezala adoste aldera.

Kexagilearen erreklamazioa ikusita eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak kontuan harturik, honakoa jakinarazten dizugu:

Ondorioak

1. Uraren Euskal Agentziak Lauros ibaiaren ibilgua mantentzeko hartu beharreko neurriak sustatzeko erantzukizuna dauka, jabari publiko hidraulikoaren babesa eta zaintzan eskumena duen erakundea den heinean.
2. Administrazio arteko lankidetzaren eta koordinazio printzipioen babesean, beharrezkotzat jotzen den esku-hartzea eragindako administrazioen arteko adostasunaren bidez bideratu beharko da edo, halakorik ez balego, aginduzko emaitza lortzeko dagozkion funtzioak eta eskumenak erabiliz.
3. Uraren Euskal Agentziak inguruko uholdeen arrazoiak behar bezala diagnostikatu eta aldizka gertatzen diren uholdeentzako konponbideak zehaztuko dituen ikerketa hidraulikoa egin dezaten sustatu beharko du eta, hura izapidetzean, Loiuko eta Erandioko Udalek zein Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailak parte hartzeko aukera izango dute.

